

Azken literatura nobedadeak aurki daitezke ateak atzo ireki zituen Eibarko liburu azokan

Ekimena hilaren 26ra arte egongo da abian Untzagan, 22 erakusleren partaidetzarekin Herritarrek liburutegiko fondoa ezagutzeko eta bazkide egiteko aukera izango dute datorren astean azoka gunean

Jabi Leon

Eibar. Eibarko liburu eta diskoaren XVIII. azokak atzo ireki zituen bere ateak Untzaga plazan. Ekimena hilaren 26ra arte egongo da abian, 22 erakusleren partaidetzarekin.

Azoka, Mari Jose Telleriak, Udaleko Kultura batzordeburuak; Eva Alberdik, Portaleako Udal liburutegiko arduradunak, eta Asier Muniategik, Euskadiko Liburu Azoken zuzendariak, aurkeztu zuten atzo.

Ekimenaren antolatzaileen hitzetan, azokaren helburu nagusiak "irakurzaletasuna bultzatzea eta egun batzuetan bada ere, liburuaren protagonista bihurtzea" dira.

Hori dela eta, herritarrek musika eta literatura arloetan "Durangoko azokari begira kaleratutako azken nobedadeak" eskuratzeko aukera izango dute Eibarren. Ohitura denez, "azken urteotan argitaratutako obra arrakastatsuenak ere prezio onean erosi ahal izango dira".

Euskarazko liburuen artean, Karmele Jaioren "Zu bezain ahul"; Miren Agur Meaberen "Zer da ba maitasuna" edo Karlos Linazasororen "Zein beste mundua" bezalakoak ikus daitezke eta gaztelerazkoen artean "El niño con el pijama de rayas", "Las manos de la madre" edo "La ladrona de libros" bezalakoak.

Azoka gunea 11.00etatik 14.00era eta 17.00etatik 21.00era arte egongo da irekita (larunbat eta igandetan ordu erdi gehiago).

Liburutegia kalean Udal liburutegiak bere eskaintza erakutsiko du astelehenetik ostiralera azokan.

Horretarako, liburutegiko arduradunek postu bat egokituko dute udaletxe azpian eta herritarrek karneta egiteko edo liburuak maileguan hartzeko aukera izango dute.

Bestalde, Jose Luis Urrutiak, Cesar Borgia - El hijo del Papa bere azken lanaren aleak sinatuko ditu hilaren 24an, 19.00etan, liburu azokan.